

Ezkontzen estatistika

Emaitzen analisia

Lanketa:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

Argitaraldia:

V-2005

Argitalpena:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.eustat.es

© **Euskal AEko Administrazioa**

Administración de la C.A. de Euskadi

EZKONTZEN ESTATISTIKA 2003. urtean

1. 2003. urtean, aurreko urtean baino 10.892, 27 ezkontza gehiago izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan.

Ezkontzen, jaiotzen eta heriotzen estatistikek biztanleriaren mugimendu naturala osatzen dute. 1861. urtean egin zen jaiotzen lehenengo estatistika; eta harrezkero aldi honetan izan diren aldaketa demografikoak eta horien bilakaera ezagutzeko aukera dugu. Biztanleriaren mugimendu naturalak, migrazio-mugimenduekin batera, biztanleriaren gorabeherak zehazten ditu.

2003. urtean, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan zutenen artean 10.892 ezkontza izan ziren, 2000. urteko gorakadaren ostean aurreko urteetako antzeko kopurua beraz. Izan ere, 2003. urtean aurrekoan baino 27 ezkontza gehiago izan ziren. EAEn mila biztanle bakoitzeko 4,9 ezkontza izan ziren, hau da, Europako Batasunaren antzeko kopurua izan zen baina Espainian baino ezkontza gutxiago (2001. urtean 5,1).

1. TAULA		EZKONTZEN ESTATISTIKA		2003
		Batez besteko adina 1. ezkontzan (urteak)		
EZKONTZAK EUROPAKO BATASUNEAN Ezkontzak (1.000 biz.)		Gizonak	Emakumeak	
EUR25	4,8	29,4	27,2	
EUR15	4,8	29,9	27,7	
Belgika	3,9	28,6	26,7	
Txekiar Errepublika	5,2	27,6	25,2	
Danimarka	6,9	31,8	29,6	
Alemania	4,7	29,8	27,2	
Estonia	4,3	27,3	25,5	
Grezia	5,4	30,4	25,7	
Espainia	5,1	29,8	27,8	
Frantzia	4,9	30,2	28,1	
Irlanda	5,0	29,7	27,9	
Italia	4,5	30,4	27,4	
Txipre	14,5	28,9	26,1	
Letonia	4,2	26,7	24,8	
Lituania	4,7	26,0	24,1	
Luxemburg	4,5	30,0	27,7	
Hungaria	4,5	27,9	25,5	
Malta	5,6	:	:	
Herbehereak	5,2	30,3	28,2	
Austria	4,5	29,7	27,4	
Polonia	5,0	26,5	24,4	
Portugal	5,4	27,5	25,9	
Eslovenia	3,5	29,6	27,4	
Eslovakia	4,7	26,8	24,6	
Finlandia	5,2	30,1	28,5	
Suedia	4,3	32,3	30,1	
Britainia Handia	5,1	29,3	27,2	
Euskal AE	4,9	31,7	29,7	


2003 baino lehenagoko datuak, Euskal AEkoak izan ezik
 (:) Datu ez eskuragarria

Iturria: EUROSTAT. Population statistics 2004

2003. urtean 10.892 bikote ezkondu ziren eta horietako 10.130 Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izan zen (1.451 Araban, 5.176 Bizkaian eta 3.503 Gipuzkoan); beste 762 bikoteak, aldiz, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo joan ziren bizitzera. Bikoteak ezkondu ziren tokien arabera, 10.017 ezkontza Erkidegoan bertan egin ziren eta 875 Erkidegotik kanpo.

Ezkondu zirenen jatorri geografikoari dagokionez, ezkontzen %68,3 Erkidegoko udalerrri bereko bizilagunen artean egin ziren, eta %9,1 udalerrri mugakideetako bizilagunen artean.

Ezkontzak ezkonberrien egoitzen hurbiltasunaren arabera. (%)




2003ko ezkontzak ospatzeko moduak aintzat hartuta, 6.827 ezkontza katolikoak izan ziren, 4.056 ezkontza zibilak izan ziren eta 9 bestelako erlijioetakoak izan ziren. Urteak igaro ahala, ezkontza zibili gero eta gehiago izan da: 1990. urtean ezkontzen %23,3 mota horretakoak ziren eta 2005. urtean %37,2.

Lurraldez lurralde, ezkontza zibilen portzentaje handiena Arabakoa izan zen (%43,1), gero Gipuzkoakoa (%40,9) eta azkenik Bizkaikoa (%35,5).


2. TAULA EZKONTZEN ESTATISTIKA 1990-2003			
EZKONTZA ZIBILEN BILAKAERA (%)	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
1990	21,3	24,1	23,3
1991	24,1	26,0	25,1
1992	24,3	24,0	25,7
1993	24,8	27,9	27,6
1994	26,7	27,6	26,0
1995	30,4	28,1	26,4
1996	31,9	29,1	27,4
1997	31,5	28,4	29,9
1998	35,9	30,1	32,4
1999	33,8	28,6	30,5
2000	30,3	29,0	31,3
2001	32,7	32,3	35,0
2002	35,6	34,9	37,4
2003	43,1	35,5	40,9

Ezkontzen hileko mugimendua. Oinarria 100 = batez bestekoa



Ezkontzeko unea aukeratzekoan estazionalitate nabarmena ematen da: lau ezkontzatik hiru maiatza eta urria bitartean egin dira, eta horien artean iraila (1.553), uztaila (1.493) eta maiatza (1.406) izan dira nagusienak. Udako hilabeteak aintzat hartuta, abuztuan ezkontza kopurua gutxitu egiten da, baina hilabete horretan egin dira Euskal Autonomia Erkidegokoak izanik bertatik kanpoko ezkontza gehienak. Abenduan, urtarrilean eta otsailean ezkontza oso gutxi eginen dira baina ezkontza zibilen portzentajea gehitu egiten da.


Ezkontzak hilabetea eta ezkontza moten arabera. (%)



Ama izateko adinak gora egin duen neurrian, ezkontzeko adinak ere hala egin du. 1986tik, senarren batez besteko adina 4,3 urte igo da, eta emazteena, 4,8.

2003. urtean, ezkondu ziren gizonetzko ezkongabeen batez besteko adina 31,7 urte zen, eta emakumezkoena, berriz, 29,7. Adin horiek Europako Batasunekoak gainditu zituzten, bien arteko aldea bi urte ingurukoa izanik; hain zuzen, Europako Batasunean, ezkondu ziren gizonetzko ezkongabeen batez besteko adina 29,4 urte zen eta emakumezkoena 27,2.


Ezkonberrien batez besteko adina





Adin-tarteei dagokienez, eta gizonen kasuan, 30-34 urteko taldea 25-29 urtekoa (1997. urtean ugariena) gainditzen du oraindik. 35 urtetik gorako ezkonberrien ehunekoak gehitzen jarraitzen du, era berean, 25 urtetik beherakoak gutxitzen jarraitzen du.

Emakumeen kasuan, 30-34 urteko taldea pixkanaka gehitzen doa eta 20-24 urtekoa gutxitzen. Hala ere, hamarkada horretan 25-29 urteko taldea da nagusi oraindik baina 1994. urtetik aurrera pixkanaka gutxitzen joan da. Gizonen kasuan bezala, emakumezkoen kasuan ere 35 urtetik gorako emazte gehiago dago eta ia desagertu egin da 20 urte baino gutxiagorekin ezkontzen diren emakumeen taldea.

Ezkontzen banaketa ezkonberrien adinaren arabera. (%)




Ezkonberrien adinaren bilakaera. (%)



Ezkondu baino lehenagoko egoera zibila aintzat hartuta, ezkontzen %90 ezkongabeen artekoa izan zen. Ezkongabe zegoen emakumeen ehunekoa (%94,1) gizonena (%93,5) baino handiagoa izan zen. Alargunak, ordea, ez dira ezkonberri guztien %1era heltzen. Alargunen artean berriz ezkondu ziren gizonak ia emakumeak baino bi aldiz gehiago izan ziren, nahiz eta kopuru horiek oso txikiak izan. Dibortziatuta zeuden ezkonberrien kopurua ere ez zen oso handia baina 1990. urtetik aurrera kopuru

hori gehitzen joan da. Dibortziatuen artean, 2003. urtean ezkondu ziren gizonen %30 eta emakumeen %28,5 dibortzio-epaia lortu eta urtebete igaro baino lehen ezkondu ziren. Azken hauetako gehienek ezkontza zibila aukeratu zuten.

Euskal Aez kanpo bizitzera joaten diren senar-emazteen helburua



Ezkondu ostean Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora bizitzera joan ziren 762 bikoteen bizilekuak hauexek izan ziren: Kantabria eta Madril, Gaztela eta Leon, Nafarroa eta atzerriko herrialdeak. EAEko hiru lurralde historikoetan eginiko ezkontzetan ezberdintasunak daude bizitzeko lekua aukeratzean: Arabako bikoteak batez ere Gaztela eta Leon, Madril eta Errioxara joan ziren; Bizkaikoak Kantabriara, Madrilera eta atzerriko herrialdeetara, eta Gipuzkoakoak Madrilera, atzerriko herrialdeetara eta Nafarroara (hurrenkera horretan).

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



www.eustat.es